

**AHOSKERA I**

1. Egokiro ahoskatzeko zenbait ohar
  - 1.1 w letra
  - 1.2 Diptongoak eta hiatok
  - 1.3 Deikia
  - 1.4 Izen-deiturak
  - 1.5 Hitz elkartuak
2. Prosodia
  - 2.1 Euskal azentua
  - 2.2 Intonazioa
3. Ahoskera egokian trebatzen.

## AHOSKERA

### 1.1 w letra

- Germanieratik datozenek B letraren hotsa hartzen dute: walkiria (*balkiria*), Wagner (*bagner*), wolframio (*bolframio*).
- Inglesetik datozenek U letraren hotsa hartzen dute: whisky (*uixki*), Washington (*uaxinton*), Wellington (*uelinton*).

### 1.2 Diptongoak eta hiatoak

Bokal irekiak: **a, e, o**

Bokal itxiak: **i, u**

- Beheranzko diptongoak: **ai, ei, oi, au, eu** > **silaba bat** (mahai, hogei, oihan, gauza, euskal...). Euskal jatorrikoak dira.

Ondo:

Za-rautz

Be-a-sain

El-go-i-bar

goi-ze-an

Eus-kal

Txarto:

Za-ra-utz

Be-a-sa-in

El-go-i-bar

go-i-ze-an

E-us-kal

- Goranzko diptongoak: **ia, ie, io, ua, ue** > **bi silaba (hiatoa)**  
Ez dirudite euskal jatorrikoak. Badira salbuespenak: eguerdi, suerte...

Ondo:

pa-zi-en-tzi-a

A-rri-e-ta

na-zi-o-na-la

Az-pi-li-ku-e-ta

Do-nos-ti-a

Txarto:

pa-zien-tzia

A-rrie-ta

na-zio-na-la

Az-pi-li-kue-ta

Do-nos-tia

## AHOSKERA

### 1.3 **Deikia**

Azken silaba indartsuago ahoskatu ohi da:

*Hator, mutikó!*

*Zoaz, Mariá!*

*Alde, zakurrá!*

*Kaixo, Pelló!*

*Kontuz, Mikél!*

### 1.4 **Izen-deiturak**

Euskal doinuz ahoskatu behar dira:

Gaztelaniaz

Euskaraz

*Mari Kármén:* \_\_\_\_\_ *Marí Karmèn*

*Karolína:* \_\_\_\_\_ *Karólinà*

*Barrenetxéa:* \_\_\_\_\_ *Barrénetxeà*

*Gorostiága:* \_\_\_\_\_ *Goróstiagà*

*Pikabéa:* \_\_\_\_\_ *Pikábeà*

*A-rríe-ta:* \_\_\_\_\_ *A-rrí-e-tà*

*Az-pi-li-kué-ta:* \_\_\_\_\_ *Az-pí-li-kù-e-tà*

### 1.5 **Hitz elkartuak**

Hitz elkartuak erabat elkarri loturik esan behar dira, hots, hitz bakar bat bezala ahoskatu.

ume harrapatzailea ≠ ume-harrapatzailea (*umearrapatzailea*)

andre hiltzailea ≠ andre-hiltzailea (*andreiltzailea*)

erbi ehiztaria ≠ erbi-ehiztaria (*erbieiztaria*)

haur saltzailea ≠ haur-saltzailea (*hairsaitzailea*)

## 2.1 Euskal azentua

- Euskarak ez du azentu grafikorik –tilderik, alegia- erabiltzen.
- Euskal azentua ez da gaztelaniarena bezain markatua.
- Azentu horrek, batzuetan balio kontrastiboa du: bereizkuntza egiteko balio du:

básoà ≠ basóà                                      hástekò ≠ astékò

txístuà ≠ txistúà                                      híltzeà ≠ iltzèà

- Nahikoa aldatzen da toki batzuetatik beste batzuetara, euskalkien arabera.
- Euskaraz azentuazio-unitatea ez da hitza, sintagma baizik; beraz, testuinguruaren arabera alda daiteke. Horretan, deklinabideko atzizkiek zeresan handia dute baita determinatzaileek, izenondoek, postposizioek eta abarrek.

txistúlarià > [txistúlariadatòr                      ]                      hemézortzi                      >  
[hemézortzikilometrò]

- Arau orokorrak:

GAZTELANIA: azkenurreko silaba azentuatzen da. *hospitáles, amnistía, paraíso...*

EUSKARA: ezkerretik hasita bigarrena (+2) eta azkeneko silabak (-1) azentuatzen dira, azken silabaren azentua bestea bezain indartsua ez bada ere. *ospítaleàk, amnístià, parádisuà...*

Adibideak:

<u>2 silaba</u>	<u>3 silaba</u>	<u>4 silaba</u>	<u>5 silaba</u>	<u>edo</u>
<i>egín</i>	<i>ikúsi</i>	<i>batásunà</i>	<i>uníbertsitateà</i>	
<i>mutíl</i>	<i>apúrtù</i>	<i>ikástolà</i>	<i>aizkólarià</i>	
<i>baték</i>	<i>ditúgù</i>	<i>telébistà</i>	<i>intéresgarrià</i>	

## AHOSKERA

...                      ...                      ...                      ...

- Salbuespenak:

Zenbait hitzek hautsi egiten dituzte gorago aipatutako arauak. Hona hemen gehien erabiltzen diren hitz markatuen zerrenda:

*jábe*                      *néke*                      *áuzo*                      *béstela*

*géla*                      *tóki*                      *gánbara*                      *sékula*

*písu*                      *máilu*                      *éuskara*                      *prémia*

*gíro*                      *néska*                      *dénbora*                      *árima*

...                      ...                      ...                      ...

- Ohiko akatsak

askatasúna: \_\_\_\_\_                      goitibéra: \_\_\_\_\_

eskerrik ásko: \_\_\_\_\_                      gero árte: \_\_\_\_\_

pedagogía: \_\_\_\_\_                      Eúsko Alkartasúna: \_\_\_\_\_

Iparragirre: \_\_\_\_\_                      éz dut úste: \_\_\_\_\_

hála ére: \_\_\_\_\_                      éz dut ézer ésan: \_\_\_\_\_

mútil hórrek: \_\_\_\_\_                      zúre áma: \_\_\_\_\_

### 2.2 **Intonazioa**

- Hitz-katea: hitzak ez dira bakarka eta isolaturik ahoskatzen, aurreko eta atzekoei lotuta baizik:

ehun eta bat                      *eundabat*

gizon handi batek                      *gizonandibatek*

atzo izan zen                      *atzoizantzen*

- Hitz-kateak markatzeko irizpideak: mintzagaia eta galdegaia

- Jon // gaur // ETXERA joan da.

- Jon // GAUR joan da / etxera.

## AHOSKERA

- *Gaur // JON joan da / etxera.*
- *Desertua // leku berezia da.*
- *Ohitura // ez zen hurrengo mendeetan galdu.*
- Intonazioaren bidez adierazten dugu esaldia amaiturik dagoen ala ez:
  - *Zinemara joango naiz.* Beheranzko tonoz esaten badut, entzuleak badaki nik neure esana amaitua dudala.
  - *Zinemara joango naiz, biok elkarrekin joatekotan.* Goranzko tonoz badiot, hartzaileak oraindik ere segida bat espero du.
- Tonu-aldaketa uste dugun baino garrantzi handiagoko kohesio-modua da. Esaldi luzeak talde fonikotan (zatitan) ematen dira
  - *Gaur etorri den andreak demasak esan ditu.*  
*Gaurretorridenandreak ↑ // demasakesanditu ↓.*
  - *Langileak, nekatuta zeuden eta, korrika joan dira etxera.*  
*Langilleak ↑ // nekatutazeudenda ↑ // korrikajundiaetxea ↓.*
- Kontuz galderekin.
  - *Trena zazpietan atera da? ↑ ≠ Trena zazpietan atera da ↓.*
  - *Azkenean, utzi al diozu erretzeari? ↑ ≠ Azkenean, utzi diozu erretzeari ↓.*
- Harridura-perpausetan hasiera azpimarratzen dugu:
  - *Bai polita dela!*
  - *Hau zoriona!*
  - *Baietz asmatu nor den!*
  - *Eskerrak joan nintzen!*
- Ez ahaztu poza, beldurra, zalantza, erregua, ironia... adieraztekoak.

3. **Ahoskera egokian trebatzen**

Saia zaitetz egoki ahoskatzen ondorengo esaldi hauek:

$N + Z > NTZ$

- \* Ez zuela ezer ulertu esan zidan. Halere, zerbait egin zuen.
- \* Jan ezazu, mesede egongo dizu eta!
- \* Kokoteraino naukazu eta joan zaitetz popatik hartzera!
- \* Bukatu eta gero egin ezazue nahi duzuen.
- \* Hura poza eman zidana! Bi musu eman zizkidan!
- \* Zer esan zion zozoak beleari? Eta zer erantzun zion?

$L + Z > LTZ$

- \* Ixil zaitetz behingoz, astakeriak besterik ez dituzu esaten eta!
- \* Nire aiton-amonak aspaldi hil ziren.
- \* Erabil ezazu nire bizikleta eta eraman ezazu zurea konpontzera.
- \* Bil ezazu lurrean dagoena, zeuk bota duzu eta!
- \* Nire katua hil zorian egon da bi aste eta azkenean bizirik atera da.
- \* Nire lagunaren zakurra autoak harrapatuta hil zen.

$R + Z > RTZ$

- \* Har ezazu atsedena lan handia egin duzu eta!
- \* Ekar ezazu apalean dagoen hiztegi lodikote hori.
- \* Sar ezazue material guztia armairuan.
- \* Ohar zaitetzte zer gertatzen den ura gatzarekin nahasten denean.
- \* Sar zaitetzte lasai, badago lekua eta!

## AHOSKERA

\* Biharko saiorako ekar ezazue nahi duzuen kontakizuna.

EZ+ Z > ETZ

\* Dirudienez, ez zaude batere gustura gure artean.

\* Zer egin ez zekitela zeuden ni joan nintzenean.

\* Joan ginen jaialdira baina ez zegoen aparteko girorik.

\* Ez zegoen gustura eta ez zuen ezer esan.

\* Ez zeukan arrazoirik. Halere, bereari eusten zion.

\* Ez zuen lagunik eta ez zegoen txantxetarako.

EZ+N > EN

\* Ez nuen ulertu. Beraz, ez nekien zer egin.

\* Antartidara? Ez nintzateke sekula santan joango!

\* Ez nengoen ziur eta ez nintzen ausartu erantzutera.

\* Ez noa afaltzera, ez nago ondo eta.

\* Ez ninduzun ikusi ala? Ez nuen zure agurrik jaso.

\* Belauniko eskatuta ere ez nizuke emango.

EZ+L > EL

\* Irteera bat egitea? Ez litzateke batere txarto egongo.

\* Egizu igerian. Ez lizuke batere kalterik egingo.

\* Zertarako eman azalpenak. Ez liguke ulertuko seguruenik.

\* Atsedenaldi bat? Aizu, ez litzaiguke txarto etorriko.

\* Gonbidatuta ere ez lirateke etorriko.

\* Ariketaz aldatzea? Ez legoke txarto, honekin nekatuta gaude eta!

AHOSKERA

## AHOSKERA

### AHOSKERA II

Ahoskerari buruz esan ditugunak praktikatze aldera, irakurri ahoz gora...

ez naiz / ez nuen / ez nizun	<i>enaiz / enuen / enizun</i>
ez da / ez dago / ez dugu	<i>ezta / eztago / eztugu</i>
ez zara / ez zaio / ez zizkidan	<i>etzara / etzaio / etzizkidan</i>
ez bada / ez badu / ez baletor	<i>ezpada / ezpadu / ezpaletor</i>
ez luke / ez legoke / ez lioke	<i>eluke / elegoke / elioke</i>
ez ezazu / ez iezadazu	<i>etzazu / ezidazu</i>
ez ginen / ez genizkien	<i>ezkinen / ezkenizkien</i>
Ez, ba! / Ez eta nik ere!	<i>Ezpa! / Ezta nik ere!</i>
joan zen / esan ziguten	<i>joantzen / esantziguten</i>
Jan ezazu eta bakea eman ezazu!	<i>Jantzazuta bakea emantzazu!</i>
sar zaitetz / ekar ezazu	<i>sartzaitetz / ekartzazu</i>
hil zen / isil zaitetzte	<i>hiltzen / isiltzaitetzte</i>
bil ezazu / hil ezazue	<i>biltzazu / hiltzazue</i>
ikus ezazu	<i>ikustazu</i>
utz iezadazu / euts iezaiozu	<i>utzidazu / eutsiozu</i>
hor zen / hemen zebilen	<i>hortzen / hementzebilen</i>
Zu al zinen? / Ahaztu al zaizu?	<i>Zu altzinen? Ahaztu altzaizu?</i>
burdin zuloa	<i>burdintzuloa</i>
Ehun ehulek ehun egunetan ezin eho ehun ehun	
<i>Eun e-u-lek eun e-gu-ne-tan e-ziñ e-o eun e-un</i>	
behera / zaharra / ahaleginak	<i>be-e-ra / za-a-rra / a-a-le-gi-ñak</i>
moko hori / arreta handi	<i>mo-ko o-ri / a-rre-ta an-di</i>

## AHOSKERA

Ezina ekinaz egina	<i>Eziña ekiñaz egiña</i>
Bila oilo pila, mutillak!	<i>Billa olio pilla, mutillak!</i>
Isilik dago, gaixoa!	<i>Ixilik dago, gaixoa!</i>
Itsusia, itsua eta itsasoa.	<i>Itxusia, itxua ta itxasoa</i>
Zeuk eman diozu eta!	<i>Zeuk eman diozu-ta!</i>
Gurea da eta!	<i>Gurea da-ta!</i>
Lan eta lan.	<i>Landalan</i>
Bai, ba! / Ez, ba! / Baietz, ba!	<i>Bai, ba! / Ezpa! / Baiezpa!</i>
Zer du, ba? / Ba, ez dakit. / Jan, ba!	<i>Zer du, ba? / Ba, eztakit. / Jan, ba!</i>
izanez gero	<i>izan ezkeru</i>
Hauek eta horiek horiak dira, baina horiek ez dute harremanik horiekin.	
<i>Hauek eta hoiek horiak dira, baña hoiek eztute harremanik hoiekin.</i>	
Zer baina eta zer arraio ! Zer da hori?	<i>Ze baña eta ze arraio! Zer da hori?</i>
Kaixo, Pello! / Kontuz, Mikel! / Zatoz, Maria!	
<i>Kaixó, Pelló / Kontúz, Mikél / Zatóz, Mariá!</i>	
Julian / anbulantzia / malizia	<i>Ju-lí-àn / an-bú-lan-tzi-a / ma-li-zi-a</i>
walkiria / Washington	<i>balkiria / uaxinton</i>
sexu / oxigeno	<i>seksu / oksigeno</i>
xenofobia / marxismo	<i>senofobia / marsismo</i>
-Zein zen Sanson?	
-Sanson zein zen? Zein izango zen Sanson: Sanson, Sanson zen!	
<i>Zeintzen Sanson?</i>	
<i>-Sanson zeintzen? Zein izango zen Sanson: Sanson, Sansontzen!</i>	

AHOSKERA

**AHOSKERA**

Ahoskerari buruz esan ditugunak praktikatze aldera hitzaldi bat erabiliko dugu.  
Loturak, bustidura eta abar zaindu.

!

Gabon, jaun-andreok!

Poza ematen dit gaurko bilera hau ospatzeko daukagun arrazoiak, eta pozik eta  
esker onez egiten dizuet ongi etorria:

On Joxemiel Barandiaran ehun urte betetzeko zorian dugu.

Ehun urte, alajaina!

Errazak dira kontatzen, baina zailak betetzen.

Are eta zailagoak beti lanean ari izan denarentzat; izan ere, lanak bereak baititu  
nekea eta kezka.

On Joxemielek ederki probatuta dauzka bai lanaren nekea, eta baita –bere  
lanari ezin ikusia ziotenen txarkeriagatik- erbestean bizi beharraren kezka ere.

II

Ez zen kikildu, halere; ez zuen etsi. Lanean segi zuen eta lanean segitzen du, eta urte askotarako izan dadila; denon onerako ari baita!

Ez naiz hasiko ataundar handi honek eman dituen fruituak aipatzen, baina galdera hauxe egiten diot neure buruari: zertan ote ginateke Barandiaran izan ez balitz?

Ez dakit. Ez dago jakiterik. Baina badakit euskal kultura ez litzatekeela oraingo mailan egongo; beherago baizik.

On Joxemielengatik izan ez balitz, askoz gutxiago jakingo genuke orain dela milaka urteko euskaldunez, eta baliteke Ekain eta Altxerriko kobazulo zoragarri apaindu horiek oraindik ezkutuan egotea ere. Bazirenik ez genekien, eta Barandiaranek erein zuen haziari esker azaldu ziren hango altxorrak.

Eta zer esan etnografiaren sailean egin duen lanaz? Zenbateraino ezagutuko genituzkeen Euskal Herriko Mitoak, Barandiaranek bildu izan ez balitu?

Joan zen mendean jaiotako gizon honek joan zen mundua ere ezagutu zuen, eta mundu haren berri zekiten euskaldun zaharren testigantzak bildu zituen. Garaiz bildu ere; handik berehala hil baitziren lekuko haiek, eta haiekin batera mundu zaharra desagertu.

III

Euskaldun modernoak lau leiho nagusi dauzka lehengo Euskal Herria ikusteko. Lau zubi nagusi, lau zutabe, sendo oinarrituak: Azkue, Lekuona, Orixe eta Barandiaran; kultura-munduko erraldoiak.

Azkuek hiru mila kanta zahar jaso zituen *Cancionero popular vasco* deritzan bildumarako, eta lau liburutan bildu zuen *Euskalerrriaren Yakintza*.

Lekuonak, *Literatura oral euskérica* delakoarekin, distira berriz jantzi zuen ahozko euskal literatura.

Orixek, *Euskaldunak* poema paregabea, herri osoaren bihotz taupadak kantatu zituen bi mila bertso adierazgarritan: Euskal Herria mintzo zaigu haren ahoz.

Lan horrek merezi duen saria zor diogu Barandiarani, eta diruz ezin ordaindu halako zorra denez, maitasunez eta ohorez ordaindu nahi diogu.

Eskerrik asko, bihotz bihotzez, eta zorionak, On Joxemiel; eta eskerrik asko dokumental honen aurkezpena etorri zareten guztioi ere.

ZUBIMENDI, Jose Ramón; ESNAL, Pello: *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1993. (17.-19.or.)